

infraganti MAITANE ALONSO

Maitane Alonso 18 urteko sodupetarrak elikagaien bizitza luzatzen duen makina bat garatu du. Janari soberakinei probetxua ateratzeko nahiak eraman zuen etxeko txoko batera ikertzera, eta, handik, nazioarteko zientzia azoketara heldu da, gazteek mundua aldatzeko duten gaitasuna egiaztatzerako. Gakoa, jakin-mina piztu eta hauspotzea.



Irudian, Maitane Alonso Sodupeko ikerlari gaztea. Aritz LOIOLA | FOKU

Zer egin daiteke jakien bizitza luzatzeko? Galdera potoloa da eta arazoari irtenbidea bilatzeko ahaleginak hamaika ertz izango ditu ziurrenik, goseak kolpatzen duen bitartean elikagai tonak zaramara botatzen baitira mundu global honetan. Planeta osoan, seguruenik, milaka buru arituko dira arazoari behin betiko konponbidea nola eman pentsatzen. Bien bitartean, baina, Euskal Herrian, Sodupen, balizko irtenbide bat sortu da, makina forma du eta 18 urteko gazte batek garatu du. Orain dela bizpahiru urte hasi zen gaiaren inguruan ikertzen Maitane Alonso.

Sodupeko gaztea medikuntzako bigarren maila ikasten ari da uneotan Euskal Herriko Unibertsitatean. Asmatu duen makina aurkezten munduko zientzia eta teknologia azoka garrantzitsuenetan egon da azken boladan, baita sariak eta goraipamenak jaso ere. Zientzia erakusleihu horietan ikusi duenarekin harrituta itzuli da. «Ez nekien hainbeste gazte egon zitezkeenik hainbeste ideia zoragarriekin!», kontatu dio GAUR8ri.

Arlo publiko zein pribatutik laguntzak jaso dituzten ikerlari gazte asko ezagutu ditu, baita laguntzarik gabe sekulako proiektuak garatzen dituztenak ere. «Horrek adierazten du gazteok sekulako potentziala daukagula mundua aldatzeko. Egia den arren sarri ez dugula erabiltzen», nabarmendu du. Ildo horretan, aipatu du ulertzen duela gazte askok ikasteko erakusten duten ilusio falta. «Niri ere pasatu zitzaidan, unibertsitatean sartu arte ez nengoen pozik hezkuntza sistemak proposatzen zuenarekin:

ez da bultzatzen sormena, jendeak bere kabuz pentsatzea, ideiak izatea... Nire kasuan, ikerketa proiektuak piztu zidan gehiago ikasteko gogoia, baina ulertzen dut batzuk desilusionatuta egotea». Horregatik, Alonsoren ustez, «egun-go hezkuntza sistema guztion artean aldatu beharko genuke jakin-mina sustatzeko».

Unibertsitateera saltoa ematean igarri zuen aldaketa Alonsok. «Unibertsitatean jakin-mina pizten dizute. Zorte handia izan dut irakasleekin, nire proiektua bultzatu eta ikertzen jarraitzera animatu nautelako». Mikrobiologia saileko laborategiak utzi dizkiote lanerako, eta izugarri eskertzen du laguntza hori, baita unibertsitatearen zein enpresen alde-tik jasotako sostengua ere.

ZIENTZIA UDALEKUAK

Istorio guztietan bezala, hasiera bat dago. Alonsorenaren kasuan, etxean du abiapuntua. Txikitatik hartu du parte Elhuyar Fundazioaren udalekuetan eta zientzia azoketan, eta, beraz, oso gaztetatik izan du ikerketarekiko zaletasuna. Etxean bertan izan zuen elikagaien bizitza luzatzeko makina bat sortzeko ideia.

Familia giroko barbakoetan soberakin asko gelditzen ziren batzuetan. «Ez zen bidezkoa hainbeste janari alferririk galtzea. Ikertzen hasi eta ikusi nuen kontserbazio arazoak tarteko mundu osoko jakien herena bota egiten zirela!». Alonsok kontatu duenez, «mundu mailako arazo» bati soluziobide handi bat bilatzeak baino, «zerbait egiteko beharrak» bultzatu zuen bera arazoa ikertzera.

Jakien kontserbazio txarrak eragindako gaixotasunen arazoa ere aipatu du Alonsok.



Medikuntzako bigarren maila ikasten ari da EHUn Maitane Alonso. Aritz LOIOLA | FOKU

«Egun hartzen ditugun gaixotasunetako asko elikagaien kontserbazio txarrak eragindakoak dira. Gainera, epe luze-
ra minbizia eragin dezaketen produktuak erabiltzen dira jakia kontserbatzeko», azaldu du. «Nik asmatu dudana elikagaiak kontserbatzeko metodo berri bat da, jakien iraungipen-data luzatzen duena. Gainera, ez ditu erabiltzen eragin kaltegarriak eta ezezagunak izan ditzaketen produktu kimikoak», azaldu du.

PLASTIKORIK GABE

Alonsok asmatutako makinak badu beste abantaila bat: plastikoen erabilera gutxitzen du eta «substantzia kimikoek era-

gin ditzaketen gaixotasun asko ekiditeko» lagungarria du.

Makinaren sorrera ekarri zuen ideien zurrunbiloak etxe ondoko txoko batera eraman zuen Maitane Alonso, inork Steve Jobsen ibilbidearen hasierarekin parekatu duen urrats batean. Izan ere, oso ba-

Asmatutako makina txikia eta luzea da. Tuperra erdian jarri eta hamar segundoz utzi behar da bertan. Sistema industria erabilerara ere egokitu du, dendei eta industriari begira

Elikagaien kontserbazioa luzatzen da «plastikorik erabili gabe» eta «eragin kaltegarriak eta ezezagunak izan ditzaketeen produktu kimikoak» erabili beharrik gabe

liabide gutxirekin hasi zen So-
dupeko txoko hartan jakien bi-
zitza luzatzeko abentura.

Sortutako makinaren fun-
tzionamenduari dagokionez,
korapilatsuagoa da gaian adi-
tua ez denarentzat “Aire trata-
tudun ontziratzea” izena duen
makinaren funtzionamendua
azaltzea. Alonsok zehaztu due-
nez, makina sortzeko, deskar-
ga elektrikoak ematen zituen
sorgailu bat eta haizagailu bat
erosi zituen. Deskargekin aire-
an dauden molekulak bereiz-
ten dira, eta, haizagailua, be-
rriz, molekulak produktuaren
gainetik bultzatzeko erabil-
tzen da. «Hala, molekulak ez
dituzte mikroorganismoak
hiltzen», azaldu du. «Makinak

zirkuitu itxi bat sortzen du ai-
re hori bera erabiliz, energia
gutxiago erabiltzeko».

Formari begira, «txikia bai-
na luzea» den makina bat sor-
tu du etxerako. Erabilerari da-
gokionez, «plater edo tuper
batekin erabiltzea hobe da. Tu-
perra erdian jarri eta makinan
uzten duzu hamar segundoz.
Ostean, tapa jartzen diozu eta
kito! Janariak lehen baino as-
koz gehiago iraungo du».

Zehaztutakoaren arabera,
elikagai guztiekin erabil daite-
ke. Barazki eta frutekin ere
proba egin du Alonsok, eta,
dioenez, berehala galtzen di-
ren sagar zatiekin, adibidez,
egiaztatu du denbora luzeago-
an kontserbatzea lortzen dela.



Sodupeko gazteak ikerketarako grina izan du gazte-gaztetatik, eta, bere esperientzia ikusita, uste du hezkuntza sistema aldatu behar dela gazteak proiektuak garatzera bultzatzeko. Aritz LOIOLA | FOKU

Behin mekanismoa asmatuta, prototipoa garatzea zen bigarren erronka. Horretan ere Sodupeko gaztea ez zen kikildu. Adierazi duenez, hainbat ikastaro egin behar izan zituen eta informazio ugari bildu. Ahaleginak emaitza izan zuen. Kilse, Magma, J-Pack, Eurozon, Harakintza, Luis Thate eta Ameztoi Anaiak enpresen babesak lortu zuen. Enpresok euren instalazioak jarri zituzten gaztearen esku probak egin eta makinaren etxeko bertsio bat sortzeko.

Behin makina prest izanda, ezagutzera ematea zen hurrengo erronka. Bada, Alonsok "IAM" bloga sortu zuen proiektua ezagutarazteko. Blo-

garen izena Alonsoren izenabizenen laburdura da, atzetik aurrera irakurrita eta ingelesezko esamoldearekin jolas eginez. Azaldu duenez, «bakoi-tza den bezalakoa izan daitekeela» irudikatu nahi du ize-nak, «guztiok aukeratu

Nazioarteko zientzia azoka ugaritan izan da Maitane Alonso. Gazteek, «laguntzekin eta laguntzarik gabe», mundua aldatzeko duten gaitasuna ikusi ahal izan du bertatik bertara

Sodupeko gaztea oso eskertuta dago jaso duen babesagatik. Gueñesko Udalaren eta inguruko enpresen laguntza jaso du, eta EHU-n ere ikertzerara eta egitasmoa garatzera bultzatu dute

dezakegula gure bidea eta zer izan nahi dugun erabaki».

Alonsok hasitako bidea, hori bai, ez da oraindik amaitu. Makina merkaturatu baino lehen «ikerketa sakonagoak» egin nahi ditu orain, bereziki gaixotasun ugari sortzen dituzten patogeno espezifikoeekin lotuta. Izan ere, onkologoa izan nahi du Alonsok, txikitatik izan duen ametsa betez. Bere proiektua ere horrekin lotuta dago neurri handi batean. «Konturatu nintzen minbizi kasu asko elikadurarekin lotuta daudela. Pentsatzekoa da minbiziaren aurkako sendagai bat aurkitzeko lanean jende asko ari dela, bada, nik, gaixotasuna aktibatzea ekiditen la-

gun dezakegula pentsatu nahi dut. Kasu gutxi batzuk soilik balira ere...», azaldu du.

Ecofriendly filosofiaz ere aritu da GAUR8rekin. Alonsoren iritziz, egungo sisteman ez da errealista produktu kimiko guztiak eta ontziak desagerraraztea. «Ez da aukera erreala, horregatik sortu nuen metodo hau». Gaineratu duenez, «guztiz naturala da eta irtenbide posible bat gosearen aurkako borrokan. Familien ekonomia-erentzat ere positiboa da, dirua aurrezteko». Proiektu berrien zain, oraingoz laborategian sartuta jarraitzen du Alonsok bere egitasmoa hobetzen.

Nerea Gotil